

**ERABAKIA, 2011ko ABENDUAREN 23koa, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN 2012ko LANALDIA, ORDUTEGIA, OPORRAK ETA BAIMENAK ZEHAZTEN DITUEN ZIRKULARRA EMATEKO DENA.**

Langileen Lan Baldintzak arautzeko indarrean dagoen Hitzarmenak 55. artikuluan dioenaren arabera, lan egutegia urtero zehaztuko da. III. Hitzarmen Kolektiboak ere gauza bera dio 22. artikuluan.

Testu biotan lanaldi, ordutegi, opor eta baimenen inguruan egiten diren aurreikuspenak egokitu egin behar dira urte bakoitzerako urtean urteko ekitaldiari aplikatu dakizkion, eurekin bilatzen diren helburuak bete ahal izateko. Aipatutako guztia dela eta, arautegi hau aplikatu ahal izateko dokumentu hauek guztiak aztertu beharko dira: Lan Baldintzak arautzeko Hitzarmena edo Hitzarmen Kolektiboa; administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldi, ordutegi, opor eta baimenak arautzen dituen gerentearen zirkularra; 1999ko urriaren 21eko erabakia, ohiko lanaldia ez daukaten administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuak zehazten dituen; Lan Kontratudun Langileen Batzorde Parekidearen akordioa, 2001eko maiatzaren 14koa, ikerketa eta irakaskuntza praktikoak emateko langileen ordutegi bereziak egiteko irizpideei buruzkoa; erabaki honen bidez ematen den zirkularra; eta 35 orduko lanaldiari buruzko erabakiak.

Halaber, UPV/EHUko gerentearen 2007ko uztailaren 4ko erabakia ezarriko da, Berdintasunerako Legeko eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko zenbait xedapen aplikatzeari dagokionez, bai eta gerenteak 2010eko abenduaren 3an emandako erabakia ere, izan ere horren bidez prozedura ezarri zen 2010eko uztailaren 15eko akordioan (UPV/EHUko erretiroa hartzeko eta erretiro egoerara iragateko bestelako neurriei buruzkoan) aurreikusitako neurriak eskatzeko.

**RESOLUCION DEL GERENTE DE LA UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, DE 23 DE DICIEMBRE DE 2011, POR LA QUE SE DICTA LA CIRCULAR DE JORNADA DE TRABAJO, HORARIO, VACACIONES Y PERMISOS DEL PERSONAL DE ADMINISTRACION Y SERVICIOS PARA EL AÑO 2012**

El vigente Acuerdo de regulación de condiciones de trabajo, prevé en su artículo 55 que la determinación del calendario laboral se realizará anualmente. En el mismo sentido se expresa el III Convenio Colectivo en su artículo 22.

Las previsiones contenidas en ambos textos, en cuanto se refiere a la jornada de trabajo, horarios, vacaciones y permisos, precisan, por tanto, de desarrollo para su adecuación al ejercicio anual en que han de ser aplicadas, al objeto de la consecución de los fines que inspiran su establecimiento. En consecuencia, la aplicación de esta regulación requerirá la interpretación de forma integrada del Acuerdo Regulador, o en su caso del Convenio Colectivo, la Circular de Gerencia por la que se regulan los procedimientos en materia de vacaciones, licencias y permisos del personal de Administración y Servicios, la Resolución de 21 de octubre de 1999, por la que se establecen los horarios de los puestos de trabajo del Personal de Administración y Servicios con jornada diferente a la normalizada, el acuerdo de la Comisión Paritaria de personal laboral de 14 de mayo de 2001, sobre criterios para la elaboración de horarios especiales del personal de apoyo a la docencia e investigación práctica y la Circular que mediante la presente Resolución se dicta, así como de los acuerdos, sobre la jornada de 35 horas.

Es, así mismo, de aplicación la Resolución de 4 de julio de 2007, del Gerente de la UPV/EHU, para la aplicación de diversas disposiciones de la Ley de Igualdad y del Estatuto Básico del Empleado Público y la Resolución de 3 de diciembre de 2010, del Gerente de la UPV/EHU, en la que se establece el procedimiento para la aplicación de las medidas previstas en el Acuerdo de 15 de julio de 2010 sobre el tratamiento de la jubilación en la UPV/EHU.

Hori dela eta, UPV/EHUko errektorearen 2011ko otsailaren 25eko erabakiak eskuordetu dizkidan ahalmenez baliatuta (2011ko martxoaren 17ko EHAA, 53 zk.)

Por ello, en ejercicio de las competencias delegadas por Resolución de 25 de febrero de 2011 del Rector de la UPV/EHU (B.O.P.V. nº 53, de 17 de marzo de 2011)

**HONAKOA ERABAKI DUT:**

UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen 2012ko lanaldi, ordutegi, baimen eta oporrei buruzko zirkularra ematea, ondoko eranskinean zehazten den moduan.

**RESUELVO**

Dictar la Circular de jornada de trabajo, horario, permisos y vacaciones para el personal de Administración y Servicios de la UPV/EHU para el año 2012, en los términos que se precisan en el siguiente anexo.

Patxi Xabier Aizpurua Telleria  
GERENTE DE LA UPV-EHU / UPV-EHUko GERENTEA



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**UPV/EHUko ADMINISTRAZIO ETA  
ZERBITZUETAKO LANGILEEN 2012ko  
LANALDIA, ORDUTEGIA, OPORRAK ETA  
BAIMENAK ZEHAZTEN DITUEN IBILTORRIA**

**CIRCULAR DE JORNADA DE TRABAJO,  
HORARIO, VACACIONES Y PERMISOS DEL  
PERSONAL DE ADMINISTRACION Y  
SERVICIOS DE LA UPV/EHU PARA EL AÑO  
2012**

## **I. ERANSKINA**

## **ANEXO I**

### **1. ARTIKULUA. Nori dagokion**

Zirkular honetako arauak honako hauei dagozkie: UPV/EHUko Langileen Lan Baldintzak arautzeko Hitzarmenaren barruan sartzen diren administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioei eta III. Hitzarmen Kolektiboaren barruan sartzen diren administrazio eta zerbitzuetako lan kontratadun langileei.

### **2. ARTIKULUA. Indarraldia**

Zirkular hau 2012ko urtarrilaren 8tik 2013ko urtarrilaren 7ra arte egongo da indarrean. Dena den, horrek ez du galaraziko egin beharreko aldaketak egitea, akordio berri bat edo hitzarmen kolektibo berri bat onartzearen ondorioz beharrezkoa izango balitz.

### **3. ARTIKULUA. Urteko lanaldia**

Aurreko artikuluan zehaztutako aldian bete beharreko lanaldia 1.592 ordukoa izango da, baina, betiere, zirkular honetako 11. artikuluan xedatutakoaren kontra joan gabe.

### **4. ARTIKULUA. Lanaldi motak**

UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldi motak honako hauek izango dira:

- a) Ohiko lanaldia.
- b) Ohiko lanaldia ez daukaten lanpostu jakin batzuei dagokiena.
- c) Kasu espezifikoetarako lanaldi bereziak.

Lanaldi mota horietako bakoitzaren ordutegiaren berezitasunak zirkular honen I. eta II. eranskinean daude jasota. Dena dela, Batzorde Parekidean aurrerantzean hartutako erabakiek aldaketak ekar ditzakete.

### **ARTICULO 1. Ámbito de aplicación**

Las medidas contenidas en la presente Circular son de aplicación tanto al personal funcionario de Administración y Servicios que se encuentra dentro del ámbito del Acuerdo de regulación de condiciones de trabajo para el personal de la UPV/EHU, como al personal laboral de Administración y Servicios que se encuentra dentro del ámbito del III Convenio Colectivo.

### **ARTICULO 2. Ámbito temporal**

El ámbito temporal de la presente Circular se extenderá desde el día 8 de enero del año 2012 hasta el día 7 de enero del 2013, sin perjuicio de las posibles modificaciones que hubieran de ser practicadas, en su caso, como consecuencia de la aprobación de un nuevo Acuerdo o de un nuevo Convenio Colectivo.

### **ARTICULO 3. Jornada anual de trabajo**

La jornada de trabajo total a cumplir en el período de tiempo señalado en el artículo precedente queda establecida en un máximo 1.592 horas, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 11 de la presente Circular.

### **ARTICULO 4. Tipos de jornadas.**

El personal de Administración y Servicios de la UPV/EHU desarrollará su jornada de trabajo de acuerdo a uno de los siguientes tipos:

- a) Jornada ordinaria.
- b) Horarios de determinados puestos de trabajo, con jornada distinta a la ordinaria.
- c) Jornadas especiales en supuestos específicos.

Las especificidades propias de los dos primeros tipos de horarios se recogen en los Anexos II y III de esta Circular, respectivamente, sin perjuicio de las modificaciones que posteriormente se puedan producir por Acuerdos de la Comisión Paritaria.

Kasu espezifikotarako lanaldi bereziak Langile Funtzionarioen Batzorde Parekidearen 2005eko ekainaren 22ko akordioan eta Lan Kontratudun Langileen Batzorde Parekidearen 2005eko uztailaren 13koan xedatutakoaren arabera arautuko dira eta akordio horietan zehaztuta ez dagoenerako, zirkular honetan xedatutakoa aplikatuko da.

Ikastegien irekiera eta itxiera ordutegien inguruko informazioa jaso ondoren, zerrenda bat egingo da, zirkular honen IV. eranskina izango dena.

## 5. ARTIKULUA. Lanaldi murrizketak eta sartzeko malgutasuna

5.1. Lanaldi murrizketek gutxienez urte natural bateko iraupena izango dute, honako artikulua hauen babesean baimentzen diren kasuetan izan ezik: [Lan Baldintzak arautzeko Hitzarmeneko 27. artikulua](#) (2002ko azaroaren 27ko Batzorde Parekidearen IV. akordioak emandako idazketaren arabera) eta III. Hitzarmen Kolektiboko 42. artikulua.

5.2. Ordutegia malgutzera familiako bizitza eta laneko bizitza bateragarri egiteko ([Lan Baldintzen Hitzarmena hobetzeko Batzorde Parekideak 2002ko azaroaren 27an lortutako akordioko 14. atala](#) eta III. Hitzarmen Kolektiboko 53. artikulua).

5.2.1. Langileak zaindu egin behar dituen mugikortasun arazoak edo gaixotasun larri luzea duten bigarren mailarainoko odolkidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko senideak, edo urrunagoko mailakoak, langilearekin biziz gero, edo horien ardura hartu behar duenean, eskubidea izango du bi orduko malgutasuna izateko lanera sartu edo lanetik irteterakoan, bai eta bazkaltzeko etenaldietan ere. Hartutako denbora hilabeteko zenbaketan errekuaratuko da. Egunean gehienez ordu eta laurden errekuaratu ahal izango da, zerbitzuak, hala komeni zaiolako, denbora gehiago errekuaratzeko baimenik eman ezean.

5.2.2. Hamabi urtetik beherako haurrak dituzten langileek 09:30ak arteko malgutasuna izango dute lanera sartzeko; edo, bestela, bazkaltzeko etenaldia 12:45ean egin ahal izango dute. Lanetik ateratzeko ordua atzeratu beharko dute eguneko lanaldia betetzeko beste.

Las jornadas especiales en supuestos específicos se registrarán por lo dispuesto en el Acuerdo de la Comisión Paritaria del personal funcionario de 22 de junio de 2005 y la correspondiente del personal laboral de 13 de julio de 2005; en lo no previsto en dichos Acuerdos, será de aplicación lo dispuesto en esta Circular.

Recabada la información sobre los horarios de apertura y cierre de los Centros, se elaborará una relación que constituirá el Anexo IV de esta Circular.

## ARTICULO 5. Reducciones de jornada y flexibilidad de entrada

5.1. Las reducciones de jornada tendrán una duración mínima de un año natural, salvo aquéllas que fueran autorizadas al amparo del [artículo 27 del Acuerdo](#), según la redacción dada por el acuerdo IV de la Comisión Paritaria de 27 de noviembre de 2002 y del artículo 42 del III Convenio Colectivo.

5.2. Flexibilización horaria en orden a la conciliación de la vida familiar y laboral ([Apartado 14, del acuerdo de la Comisión Paritaria de 27 de noviembre de 2002](#) de Condiciones de mejora del Acuerdo Regulador y del artículo 53 del III Convenio Colectivo).

5.2.1. El personal que tenga que atender o cuidar a un familiar hasta 2º grado de consanguinidad o afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, por tener dificultades de movilidad o padecer una enfermedad grave continuada, acreditada por informe médico, podrá disponer de una flexibilidad horaria de hasta dos horas más, en los horarios de entrada y salida, incluyendo los de la pausa de comida. El tiempo dispuesto se recuperará en cómputo mensual, siendo el límite máximo de recuperación diaria de una hora y cuarto, salvo que por conveniencia del servicio se autorice uno superior.

5.2.2. El personal con hijos o hijas menores de 12 años podrá disponer de un plazo de entrada hasta las 9:30 horas o, alternativamente iniciar la pausa de comida a las 12:45 horas, debiendo retrasar la salida en el tiempo suficiente hasta completar la jornada diaria.

5.2.3. Karrerako funtzionarioek edo lan kontratadun finkoek, zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo lanpostua gordetzea dakarren beste edozein egoeratan egonez gero, edo egonkortasuna aitortua izanez gero, aukera izango dute, 60 urte betetzean, urtero lanaldia 30 minutu murrizteko ordainsarian eraginik izan gabe. Aukera horretaz baliatuz gero, 65 urterekin erretiratzeko konpromisoa hartuko dute.

Murrizketa lanera sartzeko edo irteteko orduari ezarri ahal izango zaio langileak egindako eskariaren arabera, baina, betiere, zerbitzuko premiak kontuan hartuta.

## **6. ARTIKULUA. Euskalduntze ikastaroak egiteko baimena daukaten langileen lanaldia**

### ***Egunean bi orduko ikastaroak***

Egunean bi orduko euskalduntze ikastaroak egiteko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren baimena duten langileei lanaldia bi ordu eta hogeita hamar minutu laburtuko zaie eskola egunetan.

### ***Egunean bost orduko ikastaroak***

Egunean bost orduko euskalduntze ikastaroak egiteko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren baimena duten langileak, ikastaroa egiten dauden artean, HAEEK ikastaroa egiteko jartzen duen egutegiaren menpe egongo dira. Hori dela eta, haien eskola egunak eta jaiegunak aipatu egutegi horren arabera izango dira.

### ***Hobekuntza ikastaroak***

Beren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu ondoren, euskara hobetzeko (“Hobekuntza”) ikastaroetara joateko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren baimena duten langileek lanaldia murriztuta izango dute eskolek dirauten denboran. Arratsaldeko ordutegia duen langileen kasuan, murrizketa lanera sartzeko orduan egingo da. Irizpide hau nagusiki aplikatu beharrekoa izanik, beste edozein adostu ahal izango da eskaintzen den zerbitzuari arreta eskainiz eta berori aintzat harturik.

5.2.3. El personal funcionario de carrera o laboral fijo, en situación administrativa de servicio activo o en otra que comporte reserva de plaza o que tenga reconocida la estabilidad, a partir de los 60, podrá reducir la jornada diaria, sin reducción proporcional de retribuciones, a razón de ½ hora diaria por año, adquiriendo el compromiso de acceder a la jubilación al alcanzar los 65 años de edad.

Esta reducción podrá aplicarse en los horarios de entrada y salida, a solicitud de la persona interesada, quedando condicionada la aprobación del horario propuesto a las necesidades del servicio.

## **ARTICULO 6. Jornada de trabajo del personal con autorización para asistir a cursos de euskaldunización**

### ***Cursos de dos horas diarias:***

El personal que sea autorizado por el Vicerrectorado de Euskara para la realización de cursos de euskaldunización de dos horas diarias, los días de clase verá reducida su jornada laboral en dos horas y treinta minutos.

### ***Cursos de 5 horas diarias:***

El personal que sea autorizado por el Vicerrectorado de Euskara para la realización de cursos de euskaldunización de 5 horas diarias, quedará sujeto, durante la realización del curso, al calendario académico establecido por el IVAP para el mismo. En consecuencia, el régimen de clases y días festivos será el que corresponda en función del citado calendario académico.

### ***Cursos de perfeccionamiento:***

El personal que una vez acreditado el perfil lingüístico correspondiente a su puesto sea autorizado por el Vicerrectorado de Euskara para asistir a cursos de perfeccionamiento de Euskara (“Hobekuntza”), verá reducida su jornada laboral por el tiempo de duración de las clases. En el caso del personal con jornada de tarde, tal reducción se producirá en la hora de entrada al trabajo. Sobre la prevalencia general de este criterio, podrá acordarse cualquier otro que mejor atienda el servicio que se presta.

## 7. ARTIKULUA. Jaiegunak

Ondoko hauek izango dira jaiegunak, ondorio guztietarako:

\* Jaiegunak:

- Apirilaren 5a, Ostegun Santua.
- Apirilaren 6a, Ostiral Santua.
- Apirilaren 9a, Pazko Astelehena
- Maiatzaren 1a, Langileen eguna
- Abuztuaren 15a, Ama Birjinaren Jasokunde
- Urriaren 12a, Pilarreko Ama Birjina
- Urriaren 25a, Euskadiko Eguna
- Azaroaren 1a, Domu Santu Eguna
- Abenduaren 6a, Konstituzioaren Eguna
- Abenduaren 8a, Ama Birjina Sortzez Garbiaren Eguna
- Abenduaren 25a, Eguberri Eguna
- Urtarrilaren 1a, Urteberri Eguna
- Urtarrilaren 6a, Errege Eguna

- \* Urte osoko larunbat eta igandeak.
- \* Campus bakoitzeko jaiegun bereziak:

## ARTICULO 7. Festividades

Tendrán la consideración de días festivos, a los efectos oportunos las siguientes fechas:

\* Días festivos:

- Día 5 de abril, Jueves Santo.
- Día 6 de abril, Viernes Santo
- Día 9 de abril, Lunes de Pascua
- Día 1 de mayo, Fiesta del Trabajo
- Día 15 de agosto, Asunción de la Virgen
- Día 12 de octubre, Virgen del Pilar
- Día 25 de octubre, Día de Euskadi
- Día 1 de Noviembre, Todos los Santos
- Día 6 de Diciembre, Día de la Constitución
- Día 8 de Diciembre, Inmaculada Concepción
- Día 25 de diciembre, Natividad del Señor
- Día 1 de enero, Año Nuevo
- Día 6 de enero, día de Reyes

- \* Sábados y domingos de todo el año.
- \* Festividades específicas de cada Campus:

|                 |                                                                                          |                                                                                                 |
|-----------------|------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ARABA</b>    | - Apirilaren 28a, San Prudentzio<br>- Uztailaren 25a, Santiago Apostolua                 | - Día 28 de Abril, San Prudencio<br>- Día 25 de julio, Santiago Apóstol                         |
| <b>BIZKAIA</b>  | - Uztailaren 31, Loiolako San Inazio<br>- Abuztuaren 24a, Bilboko Aste Nagusiko ostirala | - Día 31 de Julio, San Ignacio de Loyola<br>- Día 24 de Agosto, Viernes Semana Grande de Bilbao |
| <b>GIPUZKOA</b> | - Urtarrilaren 20a, San Sebastian*<br>- Uztailaren 31, Loiolako San Inazio               | - 20 de Enero, San Sebastián*<br>- Día 31 de Julio, San Ignacio de Loyola                       |

\* Eibarren: azaroaren 30a. / En Eibar: 30 de noviembre

\* Abenduaren 24a eta 31. eta zaindariaren eguna ordaindua eta errekupeatua egunak dira. Ikastegi bakoitzeko eta Zerbitzu Nagusietako zaindariaren eguna: ikastegiaren informazioa jaso ondoren, zerrenda bat egingo da, zirkular honen IV. eranskina izango dena.

\* Los días 24 y 31 de diciembre y el día del patronal son días retribuidos y recuperados. La festividad patronal de cada Centro y de Servicios Centrales: recabada la información de los Centros, se confeccionará una relación que constituirá el Anexo IV de esta Circular.

## 8. ARTIKULUA. Urteko oporrak eta aukerako egunak

1. Zirkular honen eraginpeko langileek, oro har, ordaindutako 22 eguneko oporraldia hartzeko eskubidea izango dute.

## ARTICULO 8. Vacaciones anuales y días de libre disposición

1. El personal incluido en el ámbito de aplicación de esta Circular tendrá, con carácter general, derecho al disfrute de 22 días laborales de vacaciones retribuidas.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Oporraldia zatika hartzeko baimena eman ahalko da. Zati horietako bakoitzak, gutxien dela, bost lanegun izango ditu (lau, jaiegunen bat dagoenean).

2. Zirkular honen eraginpeko langileek aukerako egun bat hartu ahalko dute (ordaindua eta erreperatua).

3. Langileari baimena ematen bazaio oporrak (osoak zein zatiren bat) udako ordutegia egiten den denboralditik kanpo hartzeko, desoreka berdindu egin beharko da (arrazoia zerbitzuaren premiak izan ez badira behintzat). Horretarako, interesatuak ordu osoak erreperatuko ditu, zerbitzuaren premien arabera, edo, bestela, denbora hori geratzen zaizkion aukerako egunetatik, norberaren gauzetarako egunetatik edo Gabonetako baimen erreperatuko egunetatik hartuko du. Eskera egitean zehaztu egin beharko du datu hau.

Langileak ezin izan baditu oporrak aldi horretan hartu bajaran egoteagatik (hala ezintasun iragankoragatik, nola amatasunagatik/aitatasunagatik) ez du denbora hori berdindu beharrik izango.

4. Oporraldietan zehar sortutako aldi baterako ezintasun, amatasun eta aitatasunaren egoerek eten egingo dute oporren aldia eta interesatuak eskubidea izango du hartzeaz dituen egunak, alta-dataren osteko sei hileren barruan hartzeko, beti ere legokiokeen urtearen barruan eta, salbuespenez, 2013ko martxoaren 31 arte luzatuko den epearen barruan, baldin eta zerbitzuaren betekizunak bermatzen badira.

Langileak, dagozkion egunak 2013ko apirilaren 1 baino lehen hartzeko ezelako aukerarik izan ez duenean, eskubidea izanen du egun horiek hartzeko, alta-datatik hasi eta egunok agortu arte.

5. Langile bati oporrak eteten bazaizkio behar bezala egiaztatutako zerbitzuko premiak direla eta, langile horrek bi atseden ordu hartzeko eskubidea izango du eteniko oporraldian hartzea espero zuen ordu bakoitzeko.

6. Zirkular honek indarrean dirauen bitartean interesatuak ezin baditu aukerako egunak ezintasun iragankoragatik, amatasunagatik/aitatasunagatik, edo behar bezala egiaztatutako zerbitzuko premiengatik, baimena lortu ahal izango du egun horiek hartzeko aukera 2013ko martxoaren 31ra arte luzatzeko.

Podrá ser autorizado su disfrute en varios períodos. Cada uno de esos períodos comprenderá, al menos 5 días laborables (4, cuando incluya algún día festivo).

2. El personal incluido en el ámbito de aplicación de esta Circular podrá disfrutar un día de libre disposición, retribuido y recuperado.

3. Cuando fuera autorizado el disfrute, total o parcial, de vacaciones fuera del período en que se desarrolla el horario de verano, siempre que no tenga su origen en las necesidades del Servicio, habrá de ser practicado el correspondiente ajuste, bien mediante recuperación horaria por horas completas, en función de las necesidades del Servicio, bien con cargo a los días de libre disposición o asuntos particulares que restaren por disfrutar o, en su caso, con cargo a los días de permiso recuperado de Navidad, habiendo de constar este extremo en la solicitud.

Queda exceptuado de este ajuste horario, el caso de imposibilidad de disfrute de vacaciones en el período mencionado debido a baja de incapacidad temporal y maternidad/paternidad.

4. Las situaciones de incapacidad temporal, maternidad y paternidad durante el período vacacional interrumpirán su disfrute, teniendo derecho el/la interesado/a a continuar el disfrute de los días que resten dentro de los seis meses siguientes a la fecha de alta, siempre dentro del año a que correspondiere pudiéndose extender, excepcionalmente, como máximo hasta el 31 de marzo de 2013, respetando las necesidades del servicio.

Cuando el trabajador no haya podido, en ningún caso, disfrutar los días que le corresponden antes del 1 de abril de 2013, podrá disfrutar de los mismos desde la fecha de alta hasta que se consuma el número de días a que tiene derecho.

5. Cuando se interrumpiere el disfrute de las vacaciones por necesidades de servicio debidamente acreditadas, la persona afectada tendrá derecho a una compensación de dos horas de descanso por cada hora de disfrute que tenía prevista en dicho período vacacional.

6. Cuando no se pudieran disfrutar dentro de la vigencia de esta Circular los días de libre disposición por situaciones de incapacidad temporal, de maternidad o paternidad, o por necesidades de servicio debidamente acreditadas, podrá ser autorizado el disfrute de los mismos hasta el 31 de marzo de 2013

## 9. ARTIKULUA. Baimen errekuperatuak

### 1. Baimen errekuperatuko txandak

Baimen errekuperatuko txanda bi egongo dira, bata Aste Santuan hartzekoa eta bestea, berriz, Gabonetan.

#### a) Aste Santua:

1. txanda: 2012ko apirilaren 2, 3 eta 4.

2. txanda: 2012ko apirilaren 10, 11 eta 12a (\*)

\*Apirilaren 12an aukerako eguna hartu nahi duten langile guztiei horretarako baimena emango zaie.

#### b) Gabonak:

1. txanda: 2012ko abenduaren 26, 27 eta 29a.

2. txanda: 2012ko urtarrilaren 2, 3 eta 4a.

2. Baimen ordainduko txandan dagoen bitartean langileak baja hartzen badu aldi baterako ezgaitasunagatik edo amatasunagatik/aitatasunagatik, txanda hori eten egin beharko da, eta altaren osteko hiru hilabeteen barruan hartu ahalko dira txanda horretan oraindik hartzeko geratutako egunak, betiere zerbitzuko premiak errespetatuz.. Salbuespenez, baimena eman ahal izango da Gabonetako txandari dagozkionak 2013ko martxoaren 31ra artean hartzeko.

3. Zerbitzuak urte guztian eman ez dituzten langileen kasuan zirkular honetako 12. artikulua dioena hartuko da kontuan.

4. Lanorduetatik kanpo, urte osoan, gutxienez bi orduko euskalduntze ikastaroak egiten ari diren langileek (hau da, 6. artikuluan jasotako kasuan sartzen ez direnek), bi aukera hauek izango dituzte: ohiko lanaldia egin eta gehien dela 5 laneguneko baimena izatea (jarraian zein txandaka hartzeko) edo, bestela, lantokitik ordu erdi lehenago irtetea ikastaroko egunetan. Euskalduntze ikastaroen artean Hizkuntza Eskola Ofizialekoak ere izango dira kontutan, eta iraupenari buruzko irizpideak berberak izango dira.

## ARTICULO 9. Permisos recuperados

### 1. Turnos de permiso recuperado

Los turnos de permiso recuperados serán disfrutados uno en Semana Santa y otro en Navidad.

#### a) Semana Santa:

1º turno: 2, 3 y 4 de abril de 2012

2º turno: 10, 11 y 12 de abril de 2012 (\*)

\*Se garantizará a todo el personal que así lo solicite el disfrute del día 12 de abril como de Libre Disposición.

#### b) Navidad:

1º turno: 26, 27 y 28 de diciembre de 2012

2º turno: 2, 3 y 4 de enero de 2012

2. Las situaciones de incapacidad temporal, maternidad y paternidad durante el turno de permiso retribuido interrumpirán su disfrute, teniendo derecho el/la interesado/a a continuar el disfrute de los días que resten dentro de los tres meses siguientes a la fecha de alta, siempre dentro del año a que correspondiere, respetando las necesidades de Servicio. Excepcionalmente, podrá ser autorizado el disfrute de las pertenecientes al permiso de Navidad hasta el día 31 de marzo del año 2013.

3. Para el personal que no llegue a prestar servicios durante el año completo, se estará a lo previsto en el artículo 12 de esta Circular.

4. El personal que realice cursos anuales de euskaldunización fuera del horario de trabajo con sesiones de al menos dos horas de duración, y que no se encuentren dentro del ámbito regulado en el artículo 6, podrá optar entre seguir haciendo la jornada normal y disfrutar de hasta 5 días de permiso, alternos o continuos, o bien, por adelantar en media hora su salida del centro de trabajo los días que tenga clase. Dentro de los cursos de euskaldunización también se contemplan las Escuelas Oficiales de Idiomas, siguiendo el mismo criterio en cuanto a la duración.



Egunak modu honetan banatuko dira ohiko lanaldia egiten jarraitzen dutenentzat:

| Egunak/asteko (eskolak) | Asistentzia | Baimena (egunak) |
|-------------------------|-------------|------------------|
| 5 egun                  | % 100       | 5 egun           |
| 5 egun                  | ≥ % 80      | 4 egun           |
| 4 egun                  | %100        | 4 egun           |
| 4 egun                  | ≥ % 80      | 3 egun           |
| 3 egun                  | % 100       | 3 egun           |
| 3 egun                  | ≥ % 80      | 2 egun           |
| 2 egun                  | % 100       | 2 egun           |
| 2 egun                  | ≥ % 80      | 1 egun           |
| 1 egun                  | ≥ % 90      | 1 egun           |

Urte osokoak ez diren ikastaroak egiten dituzten langileen kasuan (adibidez hiru hilabeteko ikastaroak direnean), baldin eta ikastaroa gutxienez 100 ordukoa bada eta asistentzia gutxienez % 80koa, hiruko erregela ezarrita emango zaizkio egunak langileari, betiere, erreferentzia moduan urteko 300 ordu oinarri hartuta.

Egunak modu honetan banatuko dira era honetako ikastaroa egin duenarentzat:

| Ikastaroko orduak (eskolak) | Asistentzia | Baimena (egunak) |
|-----------------------------|-------------|------------------|
| 300 ordu                    | % 100       | 5 egun           |
| 300 ordu                    | ≥ % 80      | 4 egun           |
| 240 ordu                    | % 100       | 4 egun           |
| 240 ordu                    | ≥ % 80      | 3 egun           |
| 180 ordu                    | % 100       | 3 egun           |
| 180 ordu                    | ≥ % 80      | 2 egun           |
| 120 ordu                    | % 100       | 2 egun           |
| 120 ordu                    | ≥ % 80      | 1 egun           |

Lanorduetatik kanpo, *autoikaskuntzaren bidez*, ikastaroak egiten ari diren langileek ere gehienez 5 laneguneko baimena hartzeko aukera izango dute (jarraian zein txandaka), baldin eta HAEEk eskatutako gutxienezko orduak bete badituzte, eta, betiere, egindako ordu kopurua kontuan hartuta. Horrela, kontuan izanda egunero bi orduko ikastaroak urtean 300 ordu osatzen dituela, eta ikastaro hauetan gutxienezkoa 190 ordu izaten dela, egunak, kasu honetan, honela banatuko lirateke:

| Eskola orduak        | Baimena (egunak) |
|----------------------|------------------|
| 300 ordu edo gehiago | 5 egun           |
| 190-300 ordu         | 4 egun           |

La correspondencia de días para los que se acojan a seguir haciendo la jornada normal, será la siguiente:

| Días/ semana (clases) | Asistencia | Permiso (días) |
|-----------------------|------------|----------------|
| 5 días                | 100%       | 5 días         |
| 5 días                | ≥80%       | 4 días         |
| 4 días                | 100%       | 4 días         |
| 4 días                | ≥80%       | 3 días         |
| 3 días                | 100%       | 3 días         |
| 3 días                | ≥80%       | 2 días         |
| 2 días                | 100%       | 2 días         |
| 2 días                | ≥80%       | 1 día          |
| 1 día                 | ≥90%       | 1 día          |

Al personal que realice cursos parciales, de solo algunos meses, como por ejemplo un trimestre, con una duración total mínima de 100 horas, y una asistencia de al menos 80%, se le aplicarán los días de permiso correspondientes según una regla de tres, teniendo siempre en cuenta, como referencia, que a un total de 300 horas corresponderían 5 días de permiso.

La correspondencia de días para los que se acojan a esta modalidad, será la siguiente:

| Horas del curso (clases) | Asistencia | Permiso (días) |
|--------------------------|------------|----------------|
| 300 horas                | 100%       | 5 días         |
| 300 horas                | ≥80%       | 4 días         |
| 240 horas                | 100%       | 4 días         |
| 240 horas                | ≥80%       | 3 días         |
| 180 horas                | 100%       | 3 días         |
| 180 horas                | ≥80%       | 2 días         |
| 120 horas                | 100%       | 2 días         |
| 120 horas                | ≥80%       | 1 día          |

